

**Kooperatibak merkataritzako frankizia onenaren Sari Nazionala jaso du duela gutxi**

## **EROSKI-K FRANKIZIA ERAKO SUPERMERKATU BAT IREKI DU OÑATIN**

- Saltokia 'Zurekin' ereduakoa da, EROSKI gaur egun bere denda sarean bultzatzen ari den eredu komertzialekoa.
- Saltokian sei langile ari dira.
- Kooperatiba 1.600 euskal hornitzaileekin baino gehiagorekin aritzen da lanean, eta 600 milioi euroren erosketak egiten dizkie.

Oñati, 2017ko azaroaren 24a.- [EROSKI](#)k frankizia erako supermerkatu bat inauguratu du gaur Oñatin (Gipuzkoa). EROSKI/city du izena, eta J. Moia kaleko 13-15 zenbakian dago. Gaur egun, EROSKI-k Zurekin denda eredu bultzatzen dihardu, eta eredu horretakoa da supermerkatu berria ere. Hona eredu horren ezaugarriak: elikagai freskoei garrantzia ematea, bezeroei tratu pertsonala ematea, tokiko produktuen aldeko apustu handia egitea eta elikadura osasungarria sustatzea. Saltokian sei langile ari dira.

Supermerkatuak 5.000 produktu eskainiko ditu, ekoizle liderren markakoak, marka propioak eta tokiko ekoizleak, eta 400 metro koadro ditu. Horretaz gainera, elikagai freskoen eskaintza zabala edukiko du; bereziki, sasoiko tokiko frutena eta barazkia, eta erreferentzia osasungarriek garrantzia hartuko dute, mota horretako sorta zabalduko baita. Saltokian, era berean, ogiak eta opilak eskaintzen dira, labe propioan egin berriak, bezeroei freskotasunik handiena bermatzeko.

Hilero-hilero eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpenaren aldeko apustu hori EROSKI Klubaren fidelizazio programan islatzen da ondoena; Gipuzkoan, 230.000 bazkide inguru ditu. EROSKI Klubak % 15eko deskontuak ere izaten ditu 2.500 produktutan baino gehiagotan, eta, gainera, promozio eta eskaintza eksklusiboak eta Travel Club programaren abantaila guztiak dakartza.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

### **600 milioi euroko erosketak**

EROSKIren politika komertzialean, ahalik eta gehiena indartu nahi dira tokiko ekonomiak, ingurunean aberastasuna sortzeko eta elikagaien industria eta gizartea eta ekonomia oro har indartzeko. Alde horretatik, kooperatibak Euskal Autonomia Erkidegoko 9.000 produktu baino gehiago merkaturatzen ditu.

Sasoiko elikagai freskoek eta tokiko produktuek leku berezia hartzen dute EROSKIren saltokietan Zurekin denda eredu berriaren bitartez. EROSKI pixkanaka ari da hedatzen eredu hori bere saltokietan, eta, hain zuzen, Oñatin gaur inauguratu den supermerkatua ere eredu horretakoa da. 1.600 euskal hornitzaileekin baino gehiagorekin aritzen da kooperatiba lanean, eta 600 milioi euroren erosketak egiten dizkie urte osoan, horretatik % 60 nekazaritzako elikagaien sektoreari.

### **Merkataritzako frankiziarik onenaren Sari Nazionala**

EROSKIk merkataritzako frankiziarik onenaren Sari Nazionala jaso du duela gutxi, frankizien nazioarteko erakusketaren (SIF) 28. edizioan. Azken lau edizioetan, EROSKIk bi aldiz jaso du saria, eta horren helburua da negozio-modalitate horretan diharduten eragile nagusien lanari balioa ematea eta agerian ipintzea.

"Sari hau frankiziadunak gustura egoteko egunero egiten dugun lanaren aitopena da. EROSKIn, apustu nabarmena egiten ari gara gure eredu komertziala ekintzaileei helarazteko, eta gure helburua da frankiziadunentzako zerbitzuen kalitatea, aholkularitza eta laguntza hobetzen jarraitzea", adierazi du EROSKIren Frankizia Saileko zuzendariak.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)